

GAUEROBIDAIA 18 GAZTE ETA TUTOREENTZAKO INFORMAZIOA

Bidaiaren elkarbizitza-araudia.

Gazteek sakelako telefonoa eramatea gomendatzen da, etengabe beraiekiko harremanetan egon ahal izateko. Begiraleei partaideen telefono-zenbakiak emango zaizkie.

Gazteren batek zalantza badauka edo galtzen bada, begiraleei deituko die. Telefono zenbakia emango zaie gazte guztiei.

Hotelean dirutza handirik ez uztea gomendatzen da. Dirua aldean eramanez gero, hobe da hainbat lekutan sartzea, kopuru txikiagoetan. Begiraleek ez dute, ez inoren dirurik, ez inoren baliozko gauzarik gordeko.

Bidaian horrelako arazorik ez izateko, beharrezkoak diren gauzak baino ez eramatea gomendatzen da. Antolatzaileek ez dute galeren inolako erantzukizunik izango.

Hotelak dauzkan arauak bete beharko dituzte gazteek. Aurkitzen duten modu berean utziko dute logela eta gauetan ez dute zaratarik egingo, ez gela barruan, ez pasabideetan. Edukazio- eta begirune-arau gutxieneoak bete beharko dituzte.

Bidaian parte hartzen dituzten guzti-guztiak errespetatuko dituzte gazteek: gidariak, laguntzaileak, gidak...

Begiraleek ezartzen dizkieten ordutegiak errespetatuko dituzte gazteek beti ere.

Gazteren batek arauak behin eta berriro urratuz gero, baliteke etxera bueltan bidaltzea. Gurasoen edo tutoreen lepotik joango da bueltako bidaia hori.

Adin txikikoek ezingo dute, ez erre, ez edari alkoholdunik hartu. Adina dena delarik ere, partaideren batek legez kanpoko sustantziak badauzka edo argi ikusten bada hartu dituela, berehala bidaliko da bueltan etxera. Horrelakoetan ere, gurasoen edo tutoreen lepotik joango da bidaia horren gastua. Adin nagusikoek alkohol gehiegi edatea ere ez da onartuko.

Eraman beharreko dokumentazioa:

NAN edo egoiliar txartela edo pasaporte
Osakidetza edo seguru pribatuko txartela

GAZTEAK EROAN BEHARREKO DIRUA

Gazteei bidaiarako dirua eman baino lehen hurrengo kontutan hartzea gomendatzen dugu::

Prezioaren barnean dagoena:

- Egonaldia
- Bidaiak
- Sarrerak eta bisitak
- Gosariak, bazkariak eta afariak

Preziotik kanpo:

- Joanaldiko bazkaria,
- Opariak, freskagarriak, izozkiak...

BIDAIAREN ARGIBIDEAK

Apirilak 4

10:00 GAZTETXOKOAN AURKEZPENA eta IRTEERA
Bazkaria bidean (Bakoitzak berea)
20:00 AFARIA hotelean

Apirilak 6

9:00 GOSARIA Hotelean
11:00 OCEANOGRAFIC
Bazkaria Pic-nic
15:00 HEMISFERIC
21:00 AFARIA hotelean

Apirilak 5

9:00 GOSARIA Hotelean
10:00 ZIENTZIAREN MUSEOA+ELEKTRIZITATEAREN
ANTZOKIA
14:30 BIOPARK (Bazkaria barne)
21:00 AFARIA hotelean

Apirilak 7

9:00 GOSARIA hotelean
10:00 BISITA GIDATUA VALENTZIAN
13:30 BAZKARIA hotelean
22:00 AMOREBIETA-ETXANO (Gudari kaleko autobus
geltokia)

GAUEROBIDAIAIN! 18 VALENTZIA, ZIENTZIA ETA ARTEEN HIRIA, BIOPARK

Betebeharrak

12 urtetik gorako gazteak (2005ean jaiotakoak)

Apuntatzeko Ametx txartelarekin Gazte Informazio Bulegoan. Ordainketa izena ematerakoan egingo da Kreditu txartelarekin.

Gazteak etxera bueltan bialduko dira begiraleak horrela erabakitzen badute gurasoekin kontaktuan jarri ondoren.

Prezioak

Prezioa **200€**koa da Ametx Txartelarekin.

Prezioaren barnean: ibilbideak, egonaldia, gosariak, bazkariak, afariak, sarrerak, begiraleak eta bidaiaren aseguruak.

“Gauerobidaian!” bidaiarako plazak esleitzeko araudia.

1. Zozketa publikoaren bidez esleituko dira plaza guztiak (**50**) honako egun eta ordu hauetan:

— 2018ko martxoaren 19an, eguerdiko 12:00etan.

Zelaietako Gazte Txokoa egingo da zozketa.

2. Izena emateko epea:

— otsailaren 14tik martxoaren 16ra, biak barne.

3. Hiru laguntzako plaza eskatuko ahal izango da. Plazen zozketa egitean, eskari bakarra balira bezala erabiliko dira eskari-multzak. Eskari baten gehitzeko izena ematerakoan, aurreko eskariaren tiketa aurkeztu beharko da.

4. Eskatzaile guztiak ezarrita dauden betekizunak betetzen dituztela egiaztatze aldera, egoki irizten dion dokumentazioa eska diezaike Ametx erakunde autonomoak onuradunei.

5. Eskariak egiteko ezarrita dauden betekizunak bete ezean hutsak zuzentzeko edo eskatzen den dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaio interesdunari, eta ohartaraziko zaio horrela egin ezean eskaria bertan behera utzitakotzat hartuko dela.

6. Honako irizpide hauek erabiliko dira plazak esleitzeko:

Erroldatuak lehentasuna izango dute. Lekua gelditzen bada bigarren zozketa bat egingo da ez-erroldatuekin.

8. Zozketan parte hartzeko nortzuk onartzen diren eta bakoitzari emandako zenbakia zein den jakin ahal izateko, izena emateko lekuetan (Gazte Informaziorako Bulegoa eta Gaztetxokoa) kontsulta-epea ezarriko da, eta erreklamazioak aurkeztu ahal izango dira. Hauxe izango da epe hori:

— 2018ko martxoaren 16tik 19ra.

9. Zozketan ausaz ateratzen diren zenbakiak adieraziko dute zein diren talde edo banako onuradunak. Taldeen edo banakoen zenbakiak argitaratzen den zerrendan datozenak izango dira, eta atera ahala esleituko zaizkie plazak onuradunei. Leku guztiak beteta daudenean ere, zenbakiak aterako dira, zenbaki guztiak amaitu arte.

10. Zozketan lekuri lortzen ez dutenak ordezkoren zerrendan egongo dira, zozketan zenbakiak ateratzean izandako ordenan. Hartu gabe gelditzen diren lekuak zerrendaren ordenari jarraiki esleituko dira.

11. Zozketa egunean, arratsaldean, jakinaraziko dira jendaurrean esleitzen diren lekuen gaineko ebazpena:

— 2018ko martxoaren 19a.

12. Norbait bidaira joan ezin bada leku hutsen zerrendara pasako dira leku horiek, ordezkoren zerrendaren ordenaren arabera. Banako bakoitzaren ordeza, banako bati esleituko zaio lekua eta taldea izatera, berriz, talde bakoitzaren ordeza, hutsik geratutako plazaren partaide-kopuru berbera daukan lehenengo taldeari.

Bidaiaren egunean honako dokumentazioa entregatuko da:

- Adin txikikoen, gurasoen baimena atzerrira bidaiatzeko (baldin eta bidaiaren atzerrira bada).

- Estatu barruko bidaietarako, Servicio Vasco de Salud/Osakidetzaren edo bestelako edozein gaixotasun-asegururen banakako txartelaren fotokopia. Atzerrirako bidaietarako, europar osasun-txartelaren fotokopia.

“Gauerobidaian” programari dagokion kuotaren ordainketa

1. Kreditu txartelarekin egingo da ordainketa.

2. **Kuotaren ordainketa izena ematerakoan egingo da**

“Gauerobidaian” programaren izena emateak berekin dakar araudi honen onarpena.

Ez da dirurik bueltatuko justifikatzen duen agiri ofizialik gabe.

Itzulketak. Izena emateko epea bukatuta dirua itzuliko da, plaza egokitzen ez bazaizu, hurrengo egoeretako bat ematen bada (beti ere idatziz eskatuta eta dagokion dokumentuak aurkeztuta): a) gaixotasun edo istripu larria (medikuaren ziurtagiria) edo b) udalekuetara etortzea eragozten duten ustekabeak edo beharrezko larriak, justifikatuta